



# LagunAro-ko 2022ko Batzar Orokorra

## Estatutu eta erregelamendu aldaketak

### LagunArok alarguntasun eta zurtasun pentsioak egokituko ditu

Zuzendaritza Kontseiluak Batzar Nagusiari proposatuko dio prestazio horiek gizartearen errealitate berrira egokitzea.

LagunAroko Kontseilu Errektoreak zenbait erabaki-proposamen helaraziko dizkio erakundearen Ohiko Batzar Nagusiari, martxoaren 22an egingo dena Donostiako Kursalean. Aldez aurretik kooperatibei bidali zaizkie, baina ez da zuzenketarik aurkeztu.

Zehazki, esparru hauei dagozkien estatutueta eta erregelamenduetako aldaketak proposatzen dira: alarguntasuna eta zurtasuna, erretiroa, enplegu laguntza, jaiotza eta adingabearen zaintza, minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten adin txikikoen zainketa, ezintasun iraunkorra, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Lehentasunezko Erakundea, eta hizkuntza inklusiboa.

**Berrikuntza nagusiek** alarguntasun eta zurtasun pentsioei eragiten diete, garai berrietara egokitzeko birformulatu baitira. Prestazio mota hori duela hamarkada batzuk sortu zen, familia-egitura nagusia seme-alabak dituzten senar-emazteena zen gizarte-testuinguru batean. Gehienetan, senarra zen etxetik kanpo lan egiten zuena, eta emakumeak etxeko lanetan aritzen ziren.

Hala ere, denboraren poderioz, gizartea eboluzionatuz joan da, eta beste familia egitura eta errealitate berriak agertu dira, hala nola izatezko bikoteak, guraso bakarreko familiak, banantzeak eta dibortzioak, etab.

Puntu honetara iritsita, LagunArok egokitzat eta beharrezkotzat jo du estaldura horren berrikuspen integrala egitea, egungo errealitatera zehaztasun handiagoz doitu dadin.

**Jarraian, aldaketa proposamen guztiak erreparatzen dira.**

# Alarguntasuna eta zurztasuna: proposatzen diren aldaketak

1

## Pertsona mutualisten heriotza egoerak.

**Erregulazio berriak pentsio bat aitortzen die hildako mutualistaren seme-alaba guztiei, baita harekin bizi ez badira ere, beste gurasoarekin baizik.**

Mutualista edo pentsioduna hilez gero, gaur egungo estaldura haren senar edo emazteari edo izatezko bikoteari alarguntasun prestazio bati ematera mugatzen da. Bestalde, hildako pertsonaren seme-alaba umezurtzei LagunArok estaldura bat ematen die, soilik zurztasun absolutua baldin bada (bi gurasoak hiltzea).

Hain zuzen, seme-alaba umezurtz absolutu horiei aitortzen zaien estaldura alarguntasun pentsioa bera da, horren onuradunik ez dagoen kasuetan; horregatik, LagunAroren erregulazioan bertan, bi estaldurak Alarguntasun izenarekin agertzen dira, ulertzen baita Zurztasun Absolutua alarguntasuna gertatzen ez denean gertatzen dela.

Orain, ordea, Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari helarazi dio mutualisten heriotza egoeretarako estaldura erabat birmoldatzeko proposamena. Horrela, berariaz jasotzen da prestazio bat aitortzen dela honako egoera hauetan: alarguntasuna, zurztasun absolutua (bi gurasoen heriotza) eta zurztasuna (LagunAroko guraso mutualista hiltzea). Helburua da seme-alaba guztiek estaldura izatea, hildakoarekin bizi izan ala ez.

Zurztasun bi prestazioak baldintzarik gabe emango dira 23 urtera bitartean, eta seme-alabek 25 urte bete arte luzatu ahal izango da, baldin eta urteko lanbidearteko gutxieneko soldata (LGS) baino handiagoa den lan errentarik lortzen ez badute.

Prestazio hauek jasotzeko ez da denbora mugarik izango, baldin eta seme-alabek gutxienez % 65eko desgaitasuna badute eta urtean LGSa baino handiagoa den lan errentarik lortzen ez badute.

Alarguntasunagatiko prestazio ekonomikoa ezarritako oinarri arautzailearen %65 da (orain oinarri beraren %75 da). Bere aldetik, zurztasun prestazioa, berriz, oinarri arautzailearen %20 da seme edo alaba bakoitzeko, eta alarguntasunaren eta zurztasunaren baturak ezin du oinarri arautzailearen % 100 gainditu. Bestalde, zurztasun absolutuko prestazioa kasu bakoitzean dagokion alarguntasun pentsioaren %90 da, eta horri gehituko zaio dagokion zurztasun pentsioa.

**Orain, ordea, Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari helarazi dio mutualisten heriotza egoeretarako estaldura erabat birmoldatzeko proposamena. Horrela, berariaz jasotzen da prestazio bat aitortzen dela honako egoera hauetan: alarguntasuna, zurztasun absolutua (bi gurasoen heriotza) eta zurztasuna (LagunAroko guraso mutualista hiltzea). Helburua da seme-alaba guztiek estaldura izatea, hildakoarekin bizi izan ala ez.**




## **Izatezko bikoteak ezkonduekin guztiz parekatzea.**

**LagunArok planteatu du alarguntza-pentsioa onartzea dagokion erregistro publikoan inskribatutako izatezko bikoteei, ezkontzen baldintza beretan.**

Une honetan, LagunAron izatezko bikoteen Alarguntasun prestazioaren aitortpena lotuta dago Gizarte Segurantzak prestazio hori ematearekin, eta, beraz, sistema publikoak prestazioa onartzen badu, LagunAron ere onartzen da. Sistema publikoan aurrerapen handiak egin dira izatezko bikoteen eta ezkonduen eskubideak parekatzeko bidean, baina oraindik ere alde handiak daude ildo horretan.

Kontseilu Errektoreak Batzarrari proposatu dio beste urrats bat ematea prestazio hori onartzeko eta Gizarte Segurantzak horri buruz erabakitzen duenetik bereizteko. LagunArok planteatzen duen araudiaren arabera, dagokion erregistro publikoan inskribatutako izatezko bikoteei aitortuko zaie alarguntasun pentsioa, ezkonduen baldintza beretan.



## **Alarguntasun pentsioa aldi baterakoa izateko aukera.**


**Mutualistaren heriotza ezkontza baino lehenagoko gaixotasun arrunt baten ondorioa denean.**

Kontseilu Errektoreak egindako proposamenean, LagunAroren erregulazioaren berritasun gisa, alarguntasun pentsioa biziartekoa izan beharrean aldi baterakoa (bi urtekoa) izateko aukera gehitu da, oso kasu zehatzetan, Gizarte Segurantzaren gertatzen den bezala, baliabideak behar bezala erabiltzea bermatzeko.

Zehazki, pentsio hau aldi baterakoa izango da mutualistaren heriotza ezkondu aurreko edo izatezko bikote gisa erregistratu aurreko gaixotasun arrunt baten ondorio denean, eta gainera honako egoera bat ematen denean:

- Elkarrekin seme-alabarik ez dagoenean
- Ezkontza edo izatezko bikotea heriotza gertatu baino urtebete lehenago egin edo erregistratu denean, baldin eta, ezkontza aldiari edo izatezko bikotearen erregistro aldiari gehituta, bi urtetik gorako bizikidetzat aldia egiaztatzen bada. Kasu horretan, ulertuko da pertsonak ez duela baldintza hori betetzen eta, beraz, biziarteko pentsiorako eskubidea izango du.





4

## **Pentsioa banatzeko irizpideak txertatzea.**

**Alarguntasunaren eta/edo zurztasun absolutuaren onuradun bat baino gehiago egonez gero.**

Alde batetik, pentsioa banatzeko irizpideak jasotzen dira, alarguntasunaren eta/edo zurztasun absolutuaren kasuan onuradun bat baino gehiago egonez gero. Eta, era berean, Kontseilu Errektoreari ahalmena ematen zaio gerta daitezkeen gainerako egoeretan dagokion erabakia hartu ahal izateko, kontuan hartzen diren oinarritzko printzipio eta irizpideekin bat etorritz.



5

## **Erregulazioa sinplifikatzea eta errealitatera egokitzea.**

**Ematen ez diren egoerak ezabatuz.**

Prestazio horren tramitazioa eta kudeaketa errazte aldera, Kontseilu Errektoreak proposamena egin du zaharkituta geratu diren eta azken hamarkadetan gertatu ez diren figura batzuk arauditik kentzeko.



6

## **Genero indarkeriako egoera, eragilea LagunAroko mutualista bat denean.**

**Kasuistika hori aurreko erregulazioari gehitzen zaio, biktima entitateko mutualista izatearen kasua jasotzen baitzuen.**

Azken Batzar Nagusian genero indarkeriako egoeretarako erregulazio espezifiko bat onartu zen. Hala, besteak beste, bertan jasotzen da genero indarkeriaren biktima den mutualista bati lesioak edo heriotza eragiteagatik epai irmo bidez kondenatua izan denak galdu egingo duela alarguntasun pentsioaren onuradun izaera, eta, kasu horretan, umezurtz absolutuen izaera komunean duten seme-alabek eskuratuko dutela.


Erregulazio horretan, gaur egun kontuan hartzen ez den kasuistika gehigarri bat sartzea proposatzen da, mutualista genero indarkeriaren biktima ez baina indarkeria horren eragilea den egoerekin zerikusia duena.

Ondorio guztietarako sentikortasun handikoak diren egoera horietarako, planteatzen dena da Kontseilu Errektoreari ahalmena ematea Gizarte Segurantzak adostutakoaren eta Erakundearen gizarte aurreikuspeneko sistemaren koherentziaren ildotik, halako kasuetan Zurztasun Absolutuaren prestazioa aitortu ahal izateko, ordaindutako prestazioa genero indarkeriaren eragile den etenaldiko mutualistaren eskubidetik deskontatuta.

Azaldutako sei arau-aldaketa hauek LagunAroko Batzar Nagusiak onartzen badu, 2022ko apirilaren 1etik aurrera 3. Tarifako kotizatzaileen kolektiboan erregistratzen diren heriotzei aplikatuko zaie.

## Indarrean sartzea

Azaldutako sei arau-aldaketa hauek LagunAroko Batzar Nagusiak onartzen badu, 2022ko apirilaren 1etik aurrera 3. Tarifako kotizatzaileen kolektiboan erregistratzen diren heriotzei aplikatuko zaie. Atzeraeraginezko izaera izatea planteatzen den arau bakarra mutualista batek eragindako genero indarkeriako egoeretan Zurztasun Absolutuko pentsioa aitortzeari buruzkoa da, egoera hori jasan ahal izan duten haurrak babesteko.



## Beste proposamen batzuk

Alarguntza eta zurztasun pentsioei buruzko aspektuez gain, estatutuak eta erregelamendua aldatzeko proposamenak beste jarduketa eremu batzuk biltzen ditu.



### **Jubilazioa:** erretiro aurreratuaren pentsioa murrizteko koefizienteak

LagunAroko Kontseilu Errektoreak egoki ikusten du Gizarte Segurantzaren irizpideak jasotzea, erretiro aurreratuaren kasuan pentsioa murrizteko aplikatu diren koefizienteak zehazteko.

Orain arte indarrean egon den erregulazioan, erretiro aurreratuaren kasuan pentsioa murrizteko aplikatu diren koefizienteak zehazteko, erretiroa hartzeko legezko edo erregelamenduzko adina zenbat hiruhilekotan aurreratu den hartu da kontuan. Eta aurrerantzean proposatzen da aurreratutako hilabete kopuruaren arabera aplikatzea.



### **Enplegu laguntza:** erregulazioa berrikustea

2021eko martxoko Batzar Nagusian adierazitakoaren arabera, LagunAroren 2021-2024 aldirako Plan Estrategikoan Erakundeak proposatzen du enplegurako laguntzaren arloan duen erregulazioa berrikustea. Berrikuspen proposamen horietako batzuk, hala nola Enpleguaren Plan Berezian jasotako laguntzak, arau irismenekoak ziren, beraz, Kontseilu Errektoreak berak araudia aldatzeko erabakia hartu du; Prestazioen Erregelamenduan jasotako gai ei eragiten dieten beste batzuk, berriz, Batzar Nagusiaren onespena behar dute.

Zehazki, Kontseilu Errektoreak proposatutako erregelamendu aldaketek hiru arlori eragiten diete: aurre-erretiroa hartzeko eta amaitzeko adina (kasu bietan urtebeteko luzapena), likidazioan dauden kooperatiben indemnizazioaren zenbatekoa, eta frankiziaren kalkulua, dimentsio jakin bat ga inditzen duten kooperatibetan.



## Jaiotza eta adingabearen zaintza

### (egungo amatasun eta aitatasun prestazioak)

2019. urtean, Gizarte Segurantzak, ordura arte Amatasun eta Aitatasun prestazioak deitutakoak ordeztu zituen, Jaiotza eta Adingabearen Zaintza izeneko prestazio bakar eta berri batekin. Aitzitik, LagunAron erabaki zen Amatasun eta Aitatasun prestazio bien izena eta egitura berezita mantentzea, sistema publikoan bien artean atsedean hartzeko eta erabiltzeko aldia berdindu arte (aitatasunena txikiagoa zen).

Parekatze-prozesu hori amaitu ondoren (bi atsedenaldiek 16 aste irauten dute orain), LagunArok uste du egokia dela bere erregulazioa Gizarte Segurantzara egokitzea, eta orain arte zeuden biak (Amatasuna eta Aitatasuna) bakar batean bateratzea (Jaiotza eta Adingabeen Zaintza).



## Minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten adin txikikoen zainketa, 23 urte arte

Estatuaren 2022. urterako Aurrekontu Orokorren Legea 2021eko abenduan argitaratu zen, eta zenbait aldaketa egin ditu Minbiziak edo beste gaixotasun larri batek jotako Adingabeak zaintzeko Gizarte Segurantzaren prestazioan.

Zehazki, sartu den aldaketarik garrantzitsuena prestazio horren beraren gehieneko iraupena luzatzean datza, gaixoak 23 urte bete arte (2021eko abenduaren 31ra arte, gehieneko adina 18 urtekoa zen).

LagunArok bere prestazioa du pertsona hauek zaintzeko, Gizarte Segurantzak duen prestazioa osatzen duena. Kontseilu Errektoreak egokitzen du LagunAroren araudian Gizarte Segurantzak prestazio horretarako sartutako nobedadeak sartzea.



## Ezintasun iraunkorra: kolektiboen egokitzapenak

2021eko Batzar Nagusian onartu zen Ezintasun Iraunkorreko prestazioa biziarteko pentsio bihurtzea. Helburua, ordu arte zegoen prestazioan detektatu ziren hainbat eragozpeni erantzun eta irtenbidea ematea.

Aldaketaren unean (2021eko martxoaren 31) pentsio hau kobratzen zuten 583ko pentsiodunen kolektiboaren %85ak, aldaketaren ondorioz pentsio handiagoa jasotzen hasi ziren. Hala ere, gainerako kasuetan (86 pertsona), biziarteko pentsio berria 2021eko martxora arte kobratzen ari zirena baino pixka bat txikiagoa zen.

Kontseilu Errektoreak, kolektibo honek horrela eskatuta, erabaki zuen epe berezi bat irekitzea, aukeratu ahal izateko Ezintasun Iraunkorreko biziarteko prestazioaren, 2021eko Batzar Nagusiari onartutako baldintzetan jarraitzea, edo aurreko egoerara bueltatzea. Aukeratzeko emandako epea amaituta, pertsona kopuru txiki batek (21) aurreko egoerara itzultzeko eskatu zuen, eta, beraz, orain proposatzen dena da Batzar Nagusiari helaraztea Prestazioen Erregelamenduan Xedapen Iragankor berri bat gehitzea (hamaikagarrena), LagunAroko araudian errealitate hori dagoela jasotzeko.



---

## **Genero hizkuntza inklusiboa: benetako berdintasunaren bidean**

LagunArok, mugimendu kooperatiboak eta Gizartearen zati handi batek gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasunaren inguruan hartutako konpromisoarekin bat eginda, Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari planteatzen dio eskumena eman diezaion Aurreikuspen Erakunde honen araudiaren barruko bi elementurik esanguratsuenen berrikuspen integrala egiteko: Estatutu Sozialak eta Prestazioen Erregelamendua. Helburua, hizkuntza inklusiboa eta ez sexista gehitzea, ulertuta hizkuntza horrek oso eragin handia izan dezakeela genero berdintasunaren esparruan urratsak egiten jarraitzeko.



---

## **Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Lehentasunezko Erakundeak: etorkizuneko ikuspegiarekin**

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko araudiak figura berritzaile bat sartu zuen, orain dela hamar urte, mota horretako erakundeen erregulazioan, "Lehentasunezko" izaera har dezaten, baldintza batzuk betetzen dituzten neurrian.

Horrela, baldintza berri honekin, funtsezko araudian tratamendu onuragarria aplikatzen zitzaien (zergak, administrazioa...), ulertzen baitzen erakunde horiek hobeto erantzuten diotela gizarte aurreikuspenaren muinari.

Egia da gaur egun Erakunde bat Lehentasunezko hartzeak ez diola ez berari ez babestutako pertsonen kolektiboari gainerako erakundeekiko tratamendu onuragarririk ematen, baina ez da baztertzeko etorkizunean arlo batzuetan gerta daitekeenik, adibidez, zergen arloan. Horregatik, Erakundea etorkizuneko jokaleku posible horretarako prestatuta egon dadin, eta Lehentasunezko BGAEaren izaera lortzeko ezarritako baldintzak betetzen dituen heinean, proposamen bat helarazten zaio ildo horretan Batzar Nagusiari, Estatutu Sozialak eta Prestazioen Erregelamenduko hainbat xedapen aldatzeko eskatzen duena.

---